

Noqua!!!

H A M A B O S K A R I A

2001eko abenduaren 7a VI.urtea

Usurbil, 125. zenbakia

**Santo Tomasko azoka,
txistorra eta txerria**

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIURUA BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8

ERREKATXIKI KALEA 2,4,6,8


GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIURUA,
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK,
KALE NAGUSIAN 4,6,8 eta ERREKATXIKI KALEAN 2,4,6,8

GARAGE ITXIAK, KOMUNITATEN ADMINISTRAZIOAK,
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT, ALTURA BEREZIAK,
BALTURGONETAK EDO KANIHANARENZAT, TAMANA ETA LAZERA
DESBERTINAK, EGUNEKO ARGIAREKIN EDO KONTAGARITZ
PROPOSALAREKIN, KOTXEAK GARBITZETIKO LEKU ARDURAN

SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUAK
SARRERAK: 500.000 pezeta/rik, HILEKOAK: 15.000 pzt.

MENDIGAIN S.M. ERAGILE INMOBILIARIOA. Tel. 943 31 48 21
DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE

GARAGEN DISTRIBUZIOA



Lehenengo solairua

Bigarrenengo solairua

SETABU TAILERRAK, S.M.

ERREMENTARITZA-GALDARAGINTZA



SOLDADURA

BURDINEZKO ATEAK

BURDIN SAREAK

PLANOTIK EGINDAKO PIEZAK

Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe

Ugarte industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

TELF: 943 36 08 48
FAXA: 943 37 24 67

Txerrimunik ordainetan



Abenduaren 4an urte bat bete zenuen **Irati**. Zorionak eta muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak **Jon!** Abenduaren 6an 9 urte beteko dituzu. Muxu haundi-haundi bat etxekoan partez. Eta goxokiak gonbidatzeaz ez ahaztu, e?



Joan den abenduaren 1ean urrezko eztaik bete zenituzten. Bejondeizuela, "platinozkoetan" berriz ospatuko dugu. Muxu bat etxeko guztien partez.



Nahiz eta berandu ibili eta ohitura ez galtzeko, zorionak hirukofe, azararen 3, 14 eta 27an zuen urtebetetze eguna izan baitzen. Muxu bat ama eta Ilargiren partez.

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, baikide direnek nahiz ez direnek tarfe hau erabili dezakete. Ekarri jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: abenduak 21

Ekartzeko azken eguna: abenduak 14

Hildakoak



2001-11-26
Marcelino Ugarte
Guridi
90 urte
Kalezar



2001-11-27
Ignacio Aizpurua
Urdanpilleta
62 urte
Zubieta



2001-12-01
Maria Iturri
Ikutza
74 urte
Aginaga

Bai, esan?

- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak 37 01 48
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Udarregi (Kalezar) 36 45 00
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiarde kiroldegia 37 24 98
- Zumarte 37 15 94

- Etumeta 37 20 01
- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Ertzantza 112
- Suhiltzaileak 112
- Larrialdiak 112
- Anbulantziak 112
- Posta Kutxa 37 32 28
- Gure Pakea 37 32 28

- Gure Elkartea 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren 47 09 76
- Noaua! aldizkaria 36 03 21
- Bake epaitegia 37 23 36
- Oa farmazia 36 12 17
- Iturralde farmazia 36 33 95
- Zubietako Herri Batzarra 37 20 77
- Argindarra (Iberduero) 47 09 76

Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47	06.03	06.20	06.08	06.24	06.39
06.17	06.33	06.50	06.38	06.54	07.09
06.47	07.03	07.20	07.08	07.24	07.39
07.17	07.33	07.50	07.38	07.54	08.09
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17	08.33	08.50	08.38	08.54	09.09
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.17	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.20	12.08	12.24	12.39
11.47	12.03	12.20	12.38	12.54	13.09
12.17	12.33	12.50	13.08	13.24	13.39
12.47	13.03	13.20	13.38	13.54	14.09
13.17	13.33	13.50	14.08	14.24	14.39
13.47	14.03	14.20	14.38	14.54	15.09
14.17	14.33	14.50	15.08	15.24	15.39
14.47	15.03	15.20	15.38	15.54	16.09
15.17	15.33	15.50	16.08	16.24	16.39
15.47	16.03	16.20	16.38	16.54	17.09
16.17	16.33	16.50	17.08	17.24	17.39
16.47	17.03	17.20	17.38	17.54	18.09
17.17	17.33	17.50	18.08	18.24	18.39
17.47	18.03	18.20	18.38	18.54	19.09
18.17	18.33	18.50	19.08	19.24	19.39
18.47	19.03	19.20	19.38	19.54	20.09
19.17	19.33	19.50	20.08	20.24	20.39
19.47	20.03	20.20	20.38	20.54	21.09
20.17	20.33	20.50	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.08	22.24	22.39
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	21.09



Kexaren bat baduzu, kritikaren bat eskuartean bada-bilkizu edo eta herriko zerbaitezaz hitz egin nahi baduzu guk ika-mikan toki bat egingo dizugu.

Eskutitzak izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noaua!n argitara emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskutitz horiek Noaua! Kultur Elkartearen egoitza eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

Abendua

Astel.	Asteaz.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igand.
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

● Hurrengo alea

Udaltzaingoa ordutegia

Astegunetan

6.00/22.00

Asteburu eta jaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu deitu telefono honetara

943-361112

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua>

Kazetarien koordinatzailea

Josu Aranberri

Kazetariak

Josu Aranberri, Amagoia Mujika,
Olatz Lasagabaster eta Agurtzane
Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe
Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier
Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal,
Alazne Begiristain, Zuloa Arnaz, Agur-
tzane Solaberrieta, Joseba Pellejero,
Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel
Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz
Goenaga, Urko Manterola, Eneko
Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Jose-
ba Zubeldia, Imanol Goenaga, An-
doni Udabe, Eukene Kamino, Isaak
Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eiz-
mendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus
Urbietza, Iñaki Agirresarobe eta Mari
Angeles Arruti.

Bazkideza

Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua:

Josu Aranberri, Amagoia Mujika,
Garikoitz Udabe, Olatz Lasagabaster
eta Agurtzane Solaberrieta.

Informatika

Pili Lizaso eta Oskar Angulo

Banaketa

Miren Azkonobietza, Txelo Vidal eta
Kerman Errekondo

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamaboskariak ez du
bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarte
jendaurreko
ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00
astegunetan

Osasun zerbitzuak euskalduntzeko eskaera

Euskal herritarrok, bereziki, Euskal Herriko zonalde euskaldunetan bizi garenok, administrazioarekin harremanak euskaraz izateko eskubidea dugu. Aldi berean, administrazioak bere zerbitzuak eta langileak gaitu eta egokitzeko obligazioa du, herritarrekin hauen hizkuntzan harremanak izateko. Eskubide hauek gauzatu ahal izateko administrazioak neurriak hartuko dituela ere diote indarrean dauden legeak.

Osasun zerbitzuak ere administrazioaren atalak dira, eta herritarren eskubideak babestu behar dituzte eta lege hauek diotena jaso eta betearazi. Lege hauek indarrean jarri zirenetik EAE n 19 eta Nafarroan 15 urtetik gora pasa eta gero osasun zerbitzuek, zoritxarrez, euskaldunak euskaraz tratatzeko ezintasuna erakusten dute gehienetan eta, hainbatean, baita axolagabekeria ere.

Eta hori larria da, zeren eta sendakuntza arloan sendagile, erizain, pediatra... eta gaixoen arteko komunikazioa faktori erabakigarria izan baitaiteke edozein gixotasun gainditzeko. Beraz, euskaldunei osasun zerbitzuak euskaraz ematen ez zaizkien bitartean, herritarren eskubide horiek zapalduak izango dira, lege-haustea egingo da eta zerbitzu kaxarra eta diskriminatzailea eskainiko da, harik eta zerbitzu eta tratatu duin, lasai eta goxoa eman artean.

Honek guztiak garbi erakusten digunez, Osakidetza eta Osasunbidearen euskararen erabilera normalizatzeko plana administrazioa normalizatzeko prozesuan atal bat da, premia eta garrantzi erabatekoak dituena eta, hain zuzen horregatik, premiazko neurriak eta plan estrategiko egoki baten prestaketa eta aplikazioa eskatzen duena.

Hau aintzat harturik, Osakidetza eta Osasunbidea-ko arduradunei, berandu baino lehen osasun zerbitzuetan euskararen normalizazioarako Plangintza Estrategikoa prestatu eta aplikatzen has daitezela eskatu nahi diegu.

- Planak orokorra izan behar du eta ez da erabiliko behin behineko arazokara estaltzeko.

- Plana globala eta progresiboa izango da. Lehen mailako atentzioko zerbitzuei lehentasuna emango die eta esparru guztiak hartuko ditu kontutan.

- Funtsezkoa da euskalduntze prozesuan inplikaturik dauden sektore guztiak Osakidetza eta Osasunbidea euskalduntzeko planaren nondik-norakoak aztertu izatea eta, bereziki, langileen ordezkariekin negoziatzea eta adostea.

- Euskararen normalizazioarako Planaren aurrekontua ez da gastu gisa hartuko, inbertsio gisa baizik. Osakidetza eta Osasunbideak gizartearekiko duten konpromisoari egokiro erantzuteko eta gizartean eskaintzen duten zerbitzuaren kalitatea hobetzeko inbertsioa.

Plan estrategikoa egokitu eta aplikatzen hasi bitartean, zonalde euskaldunetan (euskaldunen kopurua %70) urgentziako neurriak hartu behar dira. Motibazio eta sentsibilizazio lana bideratuko da plan honen barruan. Bi zentzutan landuko da motibazioa: herritarrei dago kienean batetik, eta osasungintzako langileei dagokienean bestetik. Azkenik, Osasun eremuarekin loturik dauden ikasketetan- lanbide nahiz unibertsitate mailako ikasketetan- euskalduntze planak mar txan jartzea eskatzen dugu.

Joxe Ramon Furundarena
(Osakidetza Euskalduntzeko
Erakundearen ordezkaria)



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Urtero 1000 milioi pezetatik gora joaten dira Usurbildik Madrilera

Ditxosozko Kontzertu Ekonomikoaren negoziazioa dela eta ez dela, azken aste hauetan gaia pil-pilean dabilenez, interesgarria iruditu zaigu zenbait datu jakinaraztea. Izan ere, azterketa serio bat egiten badugu, berehala konturatuko gara Euskal Herriaren ukapen politiko eta ekonomikoaren beste adierazlea dela.

Kontzertu Ekonomikoa hogei urtero negoziatzen da gobernu espainiarrarekin. Beraz, Euskal Erkidegoko Autonomi Estatutua martxan jarri zenez geroztik, hau izango da bigarren aldia aipatu negoziatioari ekiten diola Jaurlaritzak.

Konbenioa, berriz, bost urteroko negoziatzen da. Oinarri bat finkatu eta horren arabera egiten da kalkulua datozen

bost urteetarako. Hor zehazten da, besteak beste, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak ordaindu behar duten kupoa.

Baina, finean, ba al dakigu zenbat diru joaten den Madrilera urtero? Hego Euskal Herriko lau herrialdeak hartuta egindako kalkuluaren arabera urtero 500.000 milioi pezeta inguru. Eta usurbildarrok, zenbat ordaintzen dugu? Orokorrean, 1.000 milioitik gora, 190.000 pza. gutxi gora behera biztanle bakoitzeko. Kopuru horretatik %28a gainera, hein handi batean Estatuak gure herriaren kontra erabiltzen dituen eskumenak ordaintzeko dira: Errege-Etxea, Barne Ministerioa, Defentsa Ministerioa...

Madrilera bidaltzen denaren (kupoa + gizarte segurantzako

eta pentsioen kotizazioen zatia + loteria...) eta zergetatik hemen geratzen denaren gehi estatuak egiten dituen inbertsioen kenketa eginez kalkulatu dira kopuru horiek.

Datuok agerian uzten dute Estatu espainolarekiko dependentzia ekonomia. Non dago PNV, EA, IU, PSOE eta UPNk demagogikoki hainbeste aldarrikatzen duten Kontzertu eta Konbenio Ekonomikoen autogobernuaren birtualitatea? Serioak izan gaitezten, Euskal Herriko menpekotasunaren eta partizioaren adierazle argiak besterik ez dira. Euskal Herriak burujabetza behar du, besteren artean, bere ondasunak nola banatu erabakitzeko.

Batasuna

Hilabete kulturala dela eta...

Duela pare bat hilabete, Usurbilgo Gazte Asanbladak bere plangintzaren barruan, aste kultural bat egitea aurreikusia zeukan. Hainbat arrazoren ondorioz, ordea, ekitaldi hau atzeratzea erabaki genuen.

Usurbilgo Udalak horren berri jakitean, ideia polita iruditu eta aurrera eramatea erabaki zuten, talde ezberdinen elkarlaguntzaren garrantzia azpimarratuz. Beraz, bi hilabete hauetan antolatutako ekitaldiak aurrera eramateko erabakia hartu zen momentutik parte-hartzaile guztiok bildu eta antolaketa lanekin hasi ginen.

Prestakuntza honen emaitzak dagoeneko herriko kaleetan ikusiko zenituzten, propaganda kartelen bidez. Kartel hauek, ordea, ez dute benetako antolakuntza eta partaidetza islatzen: gure harridura-

rako, karteletan Noaua! eta Usurbilgo Udalaren izena besterik ez dira ageri.



Honen aurrean jaso dugun azalpen bakarra antolatzaile guztien izenekin, kartela bete-egia geratuko zela izan da. UGAk ez du inolako dominik edota goraipamenik jaso nahi buruturiko lanarengatik, baina garrantzitsua iruditzen zaigu herriko talde anitzen elkarlana azpimarratzea. Ez dugu ulertzen nola ez diren talde guztien izenak bertan azaldu, haseratik elkarlanaren garrantzia benetan adierazi nahi baitzen, metodologia aldetik.

Hori horrela ikusirik, pare bat galdera datorzkigu burura: Noaua! eta Usurbilgo Udala al dira kultur hilabete honen antolatzaile nagusiak? Hori al da herriko taldeen elkarlanaren isla?

Beraz, hurrengo elkarlan batean, gure eskutitz hau kontutan hartuko delakoan agurtzen gara.

UGA

SANTUENEA

Agurtzane Solaberrieta



Gas-sarearen kanalizazioa dela eta

Naturgasek Usurbilgo sarea hirugarren zabaltzea izeneko proiektuaren arabera, udalerriko gas-sarearen kanalizazioa Santuenera zabalduko da.



Zorrotza zubitik beheraxeago, Nekazaritza Babesteko Lurzoru ez urbanizagarrian, presio erdiko sareko erregulazio eta neurketarako estazio bat jarriko da; 4,5 x 5,5m. luze-zabal izango duen itxitura barruan 1,3 x 4m.ko txabola izango da.

Erregulazio eta neurketarako estazioa jarriko den lursailak, azken urteotan erabilera publikoa izan du. Bertan udalak zenbait animalizateaz gain, ahateak kasu, ontziratzeko leku bat ere moldatu zuen. Udara honetan zubiaren azpikaldean dauden lursail

honetan piraguan ibiltzeko ikastaroak egin dira.

Udalak lur hauek erosteko erabakia hartu badu ere, oraindik lur-jabearekin hitzarmena sinatu behar du lur hauek eskuartzeko.

Bestalde, udal aurrekontuetako inbertsio kapituluan, hitzarmena sinatzerakoan udalak bereganatzen dituen gastuak ordaintzeko dirurik ez bazuen aurreikusi, azaroaren 27ko udal plenoan udalak gastuak ordaintzeko behar adina diru jartzea erabaki zen.

Beraz, hemendik gutxira beste auzoetara iritsi den gasa Santuenera ere iritsiko zaigu.

URDAIAGA

Eider Jauregi



Dilin Dolon

Dagoeneko urte dezente dira San Estebango kanpandorreko ordulariak bere eginbeharrekoa bete zuenetik, baina, azken egun hauetan teknikari batzuk topatu ditut eliza inguruan eta zertarako ote eta kanpandorreko ordularia konpondu eta kanpai berria jartzeko. Herriko elizetako hainbat ordularik ez baitute asko laguntzen ordua jakiteko orduan, nahiz eta bere egitekoa horixe izan. Herriko kaskoko ordulariari begiratuta ere, zaila da etxera joateko momentua ote den jakitea.

Orain, aspaldiko partez, Urdaigako ermitara begiratu eta zein ordu den jakiteko

aukera izango dugu, baita elizara begiratu gabe ere, kanpaiak orduerdiro ematen baitu orduaren berri.

Dena den, bada oso argi ez daukadan gauza bat. Zer egin dute kanpai zaharrarekin?. Entzun nuenez, museo batera eraman omen zuten baina, non dagoen ez dakidanez, zergatik sinistu museo batean dagoela?.

Beste gai bati eutsiz, auzoko Jai Batzordea San Esteban Txiki eguna ospatzeko prestakizuntan gabilta. Beraz, urtero legez meza ostean hamaiketako ederraz gozatzeko aukera bikaina izango duzue nahi duzuen guztiok datorren hilaren

26an, beti bezala, San Estebango ermitan. Urteroko hitzordua, beraz, jarrita dago.



KALEZAR

Joseba Pellejero



Txapela buruan eta ibili Usurbilen

Kaixo irakurle, hemen nator berriemaile nere tartea bete nahian.

Hasteko, azaroaren 28an, autobus geltoki parean gertatu zen ezbeharrak hitz egin behar dizuet. Arratsaldeko lauak aldera gertatu zen istripua, furgoneta batek eta kamioi batek aurrez aurre talka egin eta, ondorioz, furgonetako gidaria, 26 urteko neska, bapatean zendu zen. Gure lantokira askotan etortzen zen, mezulari ibiltzen baitzen hemen inguruan. Doluminak bidaltzen dizkiegu lantokiko langile guztien partetik familikoei.

Gaia aldatuz, konturatuko zineten Oxtape eta Txikierdi

tarte horretan errepidea konpontzen ari direla gauzez azken aste hauetan. Asfalto berria botatzeaz gain, ubide berria egiten ari dira, ur putzu handiak sortzen baitziren bertan. Kaleko lagun batek aitatu didan bezala, aspaldiko urteetan hortik pasatzen ginen bakoitzean beti gogoratzen ginen garai haietako barrikadetaz. Hala, aurrerantzean zerbaiten hutsunea nabarituko dugu hortik pasatzean.

Eta aipatu gabe ezin utzi kalezartarron harrotasunerako kontutxo bat.

Abenduaren lehenengoan, Kalezarren jokatu zen aurtengo Elkarte Arteko Mus Txapelketa-

ren finala. Zortzi elkartek parte hartu zuten eta bakoitzetik bi bikote aukeratuak zituzten bi aste lehenagotik.

Hala, finalean hamasei bikote lehian ibili ondoren, zer pasako eta lau kalezartar finalerako! (hau dek egokitzea, arratsalderoko saioak eman duela fruitua udazkenean). Joxe Makazaga eta Pedro Mari Matxain izan ziren bigarren eta Julian Arias eta Aulerio Amo txapelak. Txapelakordeak horrela esan zidan hurrengo egunean, "*buru txikia dutenak eman ditek txapela, hau dek marka!*". Bakoitzak aterata kontuak nork esan zidan.

ATXEGALDE

Amagoia Mujika



Tabladu itzaleko inbidia

Eta nongoa haiz ba?. Eran-tzuna harro samar ere bota ohi dugu, usurbildarra. Segidakoak dira Sagardo egunaren inguruko kontuak, Santixabeletako parrandaren baten aipamena, hau edo beste ezagutzen ote duzun... solaslagnu kirolzalea bada, ezin falta taberna zokoko sasielkarrizketan Zubeldia anaiak, Martin Alustiza edo Xabier Mikel Errekondo. Juerga giroko kalenturan elkarrizketa luzatuz gero, hor azalduko dira JosAnton Artze eta Zumetaren izenak, edo solasak musika kontuak harrapatuz gero, Kaki Arkarazo edota Haritz Harreguy kafe orduko lagun izan dituzula ere esan dezakezu, izan egia edo gezurra, halakoetan dena da baleko.

Azkenaldian, ostera, badut kezka bat. Tabernako musika-rekin borrokatu beharreko solasaldi horietan, askotan arinak beste hainbatetan izugarri filosofoak, gustura famatuko nuke tabladu gainean bertotan ari den herritarren bat. Kasik modu errimatu eta neurtuan pentsatzera ere iritsi naiz azken asteetan, Bertsolari Txapelketa Nagusiak tontotuta nauka eta, ederki dakite hori nire txapak entzutera kondentuta daudenak.

Inbidiaz esertzen naiz oholtzatik metro eta erdi beherago, ez bakarrik hor goian abildadez kantatzen dutenen inbidiaz, baita nire alboan hau edo hura animatzera etorri direnen inbidiaz ere. Arkaitz Goikoetxe-

aren aldeko pankarta zabalitzen duten oiartzuarren inbidiaz, Fredi Paya mikrorra gerturatzeko buila batean jartzen direnen inbidiaz, Colina belodromoan egongo dela eta, gustura dauden horien inbidiaz.

Izugarri gozatzen dut batzuekin zein besteekin, are gehiago gozatuko nuke, ordea, saio ostean zorionak eman eta bizkarrean kolpetxoak eman ahal izango banio bertsolari hori, herritarren animo gozoak helarazteko moduan banitza. Oraingoan ezin, lau urte daude aurretik, ordea.

Agian ikastola magalean sorpresaren bat izateko moduan gara hurrengoan edo hurrengoan. Hala bedi.

TXOKOALDE

Imanol Goenaga



Kontzertuz kontzertu

Musika kontuekin gatoz oraingoan, Akerran kontzertuak antolatu eta antolatu jarraitzen baitugu. Lehengo azaroaren 23an "Susmo" herriko talde berriak lehenengo kontzertua eskaini zuen Txokoaldeko gaztetxean. Jende ugari bildu zen bertara, herriko gazte asko gerturatu baitzen talde honen berri jakitera. Benetan ederra izan zen kontzertua eta talde honek etorkizun polita izan dezakeela oso argi utzi zuen.

Joan den larunbatean, berriz, "Storbais" eta "Neü" taldeak aritu ziren. Ondo joan zen kontzertua eta lagun ugari izan zen

bertan, "Storbais" nahiko talde ezaguna baita.

Hauetz gain, datorren abenduaren 7an beste kontzertu bat izango da Akerran, "Barley Juice" taldearekin. Hemendik guztientzako gonbidapena. Eta gabon usainean, abenduaren 23an "Arlax" eta "Legen Beltza" taldeek kontzertua eskainiko dute gurean.

Eta kontzertuak bazter utzita, ezin aipatu gabe utzi Irisasi etxearen kontua. Aldundiak etxea uzteko agindua luzatu berri die Irisasikoei. Oraindik ez dakigu zer gertatuko den, baina, hauek joanez gero, Txo-

koaldek atzemango dio, auzoan mugimendu polita sortu baitute. Ikusi egin behar zer gertatzen den.



KALEBERRI

Eneko Harreguy



Mesuak eta zoinu otzak

Joan den zazpi-zortzi urtetan gauzak asko aldatu dira (atzeratu edo aurreratu, bakoitzak erabaki).

Gazteon irakurtze-tasa igo egin dela esango nuke. Eta idazte-tasa ere bai. Biak neurri berebean deritzot, gainera. Egun, edonor ikusten da kale bazterrean, kotxean, tabernan,... irakurtzen, edota berdin-berdin idazten.

Ipuin polita litzateke hau, baldin hemen bukatuko balitz. Baina, jarraitu egiten du. Poltsikoan-edo eramaten den ordenagailu tankerako horrek mezuak igortzeko eta

hartzeko parada ematen digu; baina ez nahi bezain eroso: letra bat idazteko, igoal, hiru aldiz sakatu behar bazaio botoi bati... Egia da, mezua jasotzeko ez duzula postariak noiz iritsiko zain egon behar, baina idatzi behar dena botoietan sartzeko ere...pazientzia!

Antzeko jokaldia gertatzen da, oraingoan, mahai gaineko ordenagailuekin. Etxetik kanpo, urruti, dagoen inorekin harremanetan jartzeko aproposak dira. Mezuak nahiaren arabera iristen dira. Eta lehenbailehen nahiago, ezta? Ahalik eta azkarren; eta arinen!

Agur, luma. "Norbaitp". Eta norbait nola idatzi kontzientziak ez badu lasai uzten, zuzen-zuzenean beste botoi baten bila hasiko da. Aaa-ahhh... hemen dago! Kito. Zuzenduta. Gauza erraza dirudi, benetan sinplea eta eroso.

Ekonomia. Ahalik eta ahalegin gutxienarekin, etekin. Baina ahalegin gutxirekin dabilenak ez du asko behar behea jotzeko. Hitzek ekonomia. Labur beharrez hizkuntza okertzen duguna. Idazketa nahasten duguna. Eta irakurketa. Agur, aditzak, agur, agur, hatxe, agur...

AGINAGA

Iratxe Begiristain



Hurrengo urtera arte, adio!

Oraingoan ere jaso dut Amagoiaren deia, "hiretzat den hurrengo kronika, gainera aurtengoz hire azkena izango den, beraz, badun zer kontatua" esanaz, laster arte agurtu ginen.

Askotan zeresan gutxi izaten da eta eguraldia, baratzak edo beste edozein aitzakiaren haririk idazten ditugu lau hitz. Gaurkoan, gogorarazi nahi dizuet eskulan tailerren ikastaroak hasiak daudela. Bertan, pintura, bolilloak, gantxiloa, memoria lantzeko kurtsoa eta yoga egiteko parada eskaintzen da.

Azken kurtso honen inguruan gauzatxo bat esan nahi nuke;

bi talde izan dira azken urte hauetan, bata goizez (helduen taldea) eta arratsaldez bestea (gazteena). Bigarren talde hau osatzeko dago oraindik. Hala, inor animatuko balitz, arratsalde batean azaldu lokaletara edo Arrate Egoitzara deitu besterik ez luke, ea aurrera ateratzen dugun ikastaro hau, taldea gal ez dadin.

Besterik ezean, aurtengoa ere badao eta 2002. urtea gero eta gertuago dugun honetan, egun onak igaro dituzuela eta urte berri on. Betiere, eta zoritxarrez, gure artean ez ditugunak gogoan izanik.



ZUBIETA

Alex Udabe



Laster dugu dena hankaz gora

Azken egun hauetan Zubieta gora eta behera hor aritu dira komunikabideetan, "barrio donostiarra" dela esanaz gustura. Donostiarra edo usurbildarra, gurea laster dugu hankaz gora, berehala hastekoak baitira plaza inguruko urbanizazio lanak. Oinezkoentzako jarriko dute kaskoa eta bidea goialdetik pasako da aurrerantzean, Araetatik hasi eta Lanbide Eskolaraino.

Ondoren hasiko dira etxeak eraikitzen, 96 guztira, 66ko babes ofizialekoak eta 30 pribatuak. Eta bitxia, benetan, etxe batzuetako jabeek erabaki beharko dutena. Badirudi, zenbait etxe erdi-erditik ebaki-

ko dituela Usurbil eta Donostiako mugak. Hala, etxe erdia Usurbilkora izango da eta beste erdia Donostiakoa. Hala ere, eta Zubietako Herri Batzarrak egindako lanari esker, etxearen jabeak berak erabaki ahal izango du nongo Udalera jo, Usurbilkora edo Donostiakora.

Bitxikeriak bitxikeri, laster sartuko dira makinak Zubietan eta zazpi bat hilabetetan hor ibiliko dira bueltak. Enbarazuak izango badira ere, lasai hartu beharko dugu, guztia Zubietaren mesedera-ko izango baita. Etxe-

bizitza gehiago, biztanle gehiago eta, ondorioz, herri mugimendu gehiago. Hori bai, Zubietara etortzen diren horiek harrapatzen asmatu beharko dugu, guztion artean herriari bizia eman eta ez dadin hilik geratu. Asmatuko dugu.



Sahara, oraindik bere eskubideak ukatuak dituen herri ahaztua

Azaroaren hasieran Marokoko errege Mohammed VI.ak, errege denetik lehen aldiz, Mendebaldeko Sahara bisitatu zuen. Fronte Polisarioak eta Sahara herriadearekiko elkartasun erakundeek probokaziotzat jotzen erregearen bisita. Saharako gatazka Noaua!ko orrialdeetara ekarri nahi izan dugu eta horretarako egun Zarautzen bizidun Enbarek saharararekin hizketan egon gara. Elkarrizketa hau Julian eta Mari Karmen Bengoetxea usurbildarren bitartez lortu dugu.

1999. urteko uztailan Mohammed VI.a Marokoko errege izendatu zuten. Azaroan Sahara bisitatu du eta horrek sahararren haserrea piztu du.

1991. urtean Marokok eta Frente Polisarioak su-etena hitzartu zuten eta bisita hau akordioaren bortxaketa izan da. 1991az geroztik ez da "gerrarik" egon, kaxotxen artean esanda, errefuxiatuak egun ere badaudelako. Hitzarmen hau nazioartean mailan aintzat hartu zen eta bake plana betearaziko zuen MINURSO Mendebaldeko Saharako Erreferendumerako NBEren Misioa eratu zen.

Zein zen batzorde honen egitekoa?

Zibilek eta militarrek osatutako batzorde honek menia segurtatu, Marokoko tropen atzera egitea ikuskatu, erreferendumerako hautesle errola eratu eta bozketaren emaitzak egiaztatu behar zituen. 1992ko urtarrilean egingo zen erreferenduma. Hitzarmen honek Sahara Marokoko zati ez dela jasotzen du. Erregeak, bisita honen bidez, nazioarteko iritzi publikoari Sahara Maroko zati dela baieztatu nahi izan du. Honen aurrean Frente Polisarioak pazientzia handia erakutsi du eta ez du oraindik erantzun.

Gainera, bisita honek oihar-



tzun handia izan du komunikabideetan.

Propaganda handia egin zaio bisita honi eta Marokok nahi duen efektua lortu du. Hau da, Sahara beren jabetzakoa dela erakutsi nahi izan dio nazioarteko iritzi publikoari. Ez da hainbeste propaganda egiten beste herrialde bat bisitatzen duenean. Gainera, telebista guztietan sahararrek erregea oso ondo hartu dutela islatu da, eta hori ez da egia. Marokotik jende asko joan zen Saharara erregeari harrera ona egiten zaiola erakusteko komunikabideen aurrean. Gainera, bisita hau dela eta, saharar askori etxeak, koi-txeak eta abar dohainik eskaini dizkiete heuren sinpatia bereganatzeko. Eta bitartean Gibraltarko itsasartean marokiar ugari hiltzen ari da.

Bestalde, NBEko idazkari nagusia Kofi Annanek plan berri bat aurkeztu du gatazka konpontzeko. Ze iritzi duzu?

Nazio Batuen Erakundeak ez du aurpegia eman nahi. Lehen zuen idazkariak, Perez de Coyer-ek, gatazka konpontzeko borondatea eta asmo ona azaldu zuen. Baina, Kofi Annanen etorrerarekin hasierako asmoak hankaz gora jarri dira. Izan ere,

Maroko erreferenduma egiteko eta autodeterminazio eskubidea aitortzeko prest ez dagoela ikustean, Nazio Batuen Erakundeak hirugarren bide bat bilatzen ari da, bere porrota ezkatatu ahal izateko. Beste irtenbide bat planteatu dute, erreferendumik gabekoa, gatazka konpontzeko. NBE Marokori lurraldea uzteko exijitzetik autonomia eskaintzera igaro da.

Zer da plan honek jasotzen duena?

Plan honek oso autonomia mugatua ematen dio Saharari. Egitasmoaren arabera, Mendebaldeko Saharak, Marokoren menean, bost urterako autonomia lortuko du eta epe horren amaieran sahararren artean galdeketa bat egingo da, erreferendum baten bitartez. Alabaina, gaur egungo moldaeran behintzat, erreferendum horretan ez litzateke egongo sahararren autodeterminazio aukerarik. Marokok kontrolatu eta izenpe-tutako gobernu bat izango luke Saharak, hauteskunde demokratikorik gabe hautatutakoa. Sahararrok ez dugu plan hau onartzen. Beriz ere atzera egitea suposatuko luke, 1975. urteko egoerara alegia. Eta hori 26 urteko erresistentzia bati eta nazioarteko komunitateak 10

urtez bultzatutako bakearentzako ahaleginei muzin egitea litzateke. Autodeterminazio eskubidea daukan bakarria herri sahararra da, eta inork ez diezaioke hori ukatu edo horretan beste aukerarik inposatu.

Atzera ginez, deskolonizazio prozesu normala zirudiena, zergatik bilakatu zen saharar herriaren biziraupeneraren aldeko borroka batean?

Saharan gauzak oso gaizki egin dira hasieratik. Espainiarren eta sahararren artean 100 urtean elkarkidetzatza ona egon da, ez da inoiz arazorik egon, 1973a arte. Urte horretan, Saharan erreferenduma burutzekoa zen. Independentzia edo Espainiako herrialde bat izaten jarraitzea zen orduan herritarrei egin beharreko galdeketa. Baina, espainiarren irteera oso lotsagarria izan zen, izan ere, handik irten eta lurraldea Mauritania eta Marokoren esku utzi baitzuen. Horrekin Espainiaren helburua etekinen bat lortzea zen, arrantza eta fosfata besteak beste, baina azkenean esku hutsik joan zen.

Orduan ekimen independentistak indarra hartu zuen, ezta?

70eko hamarkadan sortu ziren lehen ekimen independentistak Mendebaldeko Saharan, Espainiaren kolonizazioaren aurka. Hiru urte geroago independentziaren aldeko Fronte Polisarioa eratu zen. Espainiarrek alde egin zutenean, Arabiar Saharar Demokratikoa aldarrikatu zuten Polisarioak. Nahiz eta, ordurako milaka saharar Aljeriako Tinduf

eskualdeko errefuxiatu kanpalekuetara ihes eginak ziren.

Eta Marokok ze jarrera hartu zuen?

Marokok beti erakutsi izan du interes handia Sahararekiko. Baina, ez bakarrik Sahararekiko. Izan ere, Hassan II.aren eta, orokorrean, marokkiar monarkiaren helburua inperio handi bat sortzea baita; egungo Maroko, Mendebaldeko Sahara, Mauritania, Aljeria, etab. bilduko zuen marokkiar lurraldea eraikitzea, hain zuzen. Mauritaniaren independentzia 72. urtera arte ez zuen errekonozitu. Konkista horretan lehen pausua Mendebaldeko Sahara bereganatzea izan da. 1979an Mendebaldeko Saharatik irten eta Errepublika onartu zuen Mauritaniak. Marokok, ordea, herrialdea okupatu zuen 1975ean, Polisarioen eta Rabaten arteko borrokak piztuz. "Martxa berdea" bezala ezagutu izan dena, 300.000 zibil sartzeaz gain, era berean, 250.000 militar sartu zen. Martxa honen helburua Fronte Polisarioko kideak atxilotzea zenez, saharar askok eta askok beren herria utzi behar izan zuten. Militarrek kide hauen izenak zituzten, Espainiak 1975ean Marokorekin sinatu zuen hitzarmenean, izen guztiak eman zizkiolako.

Ze interes ditu Marokok Saharan?

Gatazka guztietan gertatzen den bezala, interesek indarra hartzen dute. Lurralde honetan arrantza, fosfato eta mineral ugari dago. Gainera, 285 kilometro karratuko lurraldea da

eta bertako populazioa ez da milioi batetara iristen. Zonalde estrategikoa da berarentzat, kontutan izanik, Atlantikoak eta Mediterraneoko inguratzen duela.

Nola bizi da saharar populua?

Mauritaniarren eta marokkiarren iritsierarekin, sahararrek ihes egin behar izan zuten heuren bizia salbatzeko, batez ere Fronte Polisarioko militanteak zirenak. Errefuxiatuentzako kanpamenduak eraiki zituzten. 1975 eta 76an bonbardeatu egin zituzten eta jende asko hil zen. Egun bertan 250.000 lagun inguru bizi da, zonalde okupatuetatik alde egindakoak dira eta beste herrialdeetatik jasotzen dituzten laguntzei esker bizi dira. Hala ere, azpimarratu nahi dut azken aldian asko gutxitu dela nazioarteko laguntza. Beste gatazka bat pizten den bakoitzean, Afganistangoa kasu, iritzi publikoaren arreta erabat desbideratzen da. Hala ere, honen guztiaren atzetik NBE dagoela uste dut, beraiek planteatutako hirugarren bidea onartu ahal izateko, ezinbestean.

Nola konpon daiteke gatazka hau?

Negoziatuz. Bi aldeek amore eman beharko dute eta akordio batera iritsi. Hala ere, sahararrek marokkiarrek baino gehiago eman dute amore. Lehen esaten genuen erreferendumik ezin zitekeela burutu militarrek alde egin gabe. Orain, ordea, nahiz eta militarrek egon, galdeketa egin daitekeela diogu, baina

sahararrak bakarrik dute boto eskubidea. Fronte Polisarioak esana du, independentzia lortu eta gero, desagertu egingo dela. Kongresu bat ospatuko lukete beren desartikulazioa aldarrikatzeko. Marokok ordea errepresioarekin jarraitzen du eta Fronte Polisarioak su-etena hautsi dezake eta armak hartu berriz ere.

Agurtzane Solaberrieta



Bertan behera utzi dituzte hilerri zaharreko ehorzketak

Hilerri zaharrean ez da ehorzketak gehiago egingo. Dagoeneko ez dago lekurik eta joan den azaroaren 27an egin zen udalbatzan hilerria ixtea erabaki zen. Hilerri berrian, berriz, erraustak gordetzeko kolunbarioak egiten ari dira eta hilobien gaineko eskubideak izateko eskaera egin dutenen artean bakoitzak zein hilobi izango dituen zehaztu da ja.

Hilerri zaharrean ehorzketak egiteko leku gutxi zegoenez berria egitea erabaki zenetik urte dexente pasa badira ere, dagoeneko martxan da hilerri berria. Duela gutxi egin dira bertan lehenengo ehorzketak, eta zaharra gehiago erabiliko ez denez ixtea erabaki du udalak. 10 urtetan ezingo da ezer egin hilerri zaharrean, izan ere bertako hondarrak bildu eta lekuz aldatzeko ezinbesteko baldintza baita azken ehorzketak egiten denetik 10 urte pasatzea.

Bestalde, hilerri berrian zenbait aldaketa egitea onartu zen pasa den azaroaren 13an egin zen bilkuran. Bertan erraustak gordetzeko kolunbarioak ezartzea erabaki zen eta 25eko modulu bat eta 20ko beste bat prestatzeko lanak egiten hasi da Berdintsu S.L. enpresa. Hala ere, kolunbarioaren erabilera behar bezala arautua gera dadin, ezinbestekoa ikusi da irailaren 26an behin betirako onartu zen hilerri berriaren Erregimena eta Funtzionamendurako araudia aldatzea eta aldaketa hori onartu zen azken udalbatzan.

Hilerri berriko hilobiaren gaineko eskubideen esleipena ere egin zen udalbatza honetan. Urriaren 30ean argitaratu zen hilobien gaineko eskubideak eskuratu nahi zituztenen eskabide onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda, eta azkenean 12 familiren esku gelditu dira hiru eta sei zerraldo sartzeko hilobiak.



Izen aldaketa

Euskaltzaindiak biztanle-entitateen edo auzo nagusien izenak finkatzeko lanari ekin dio. Euskera aldizkarian argitaratutako Euskal Autonomi Erkideko Biztanle-Entitateak zerrendan aldaketa bat proposatzen zen: Txiki-erdi izena erabili beharrean Txikierdi erabiltzea. Hala ere, udaleko euskara batzordeak beste proposamen bat egin du: San Esteban eta Urdaiaga izenei buruzko dokumentazioa bildu ondoren Urdaiaga izenaren aintzinasuna frogatuta gelditu da eta lehen San Esteban izenez ezagutzen zen auzoari Urdaiaga izena jartzea erabaki dute.

Lehen	Orain
San Esteban	Urdaiaga
Txiki-erdi	Txikierdi

EHNaren aurka

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak bertan behera utzi du oraingoz Euskal Herriko Naziotasun Aitormenari buruz Aizarnazabalgo udalak hartutako erabakia. Usurbilen ere erabaki hori aspaldi hartu zuten eta EAEko Gobernu Delegazioak eskatuta, Estatutako Abokatuak erabaki horren aurkako errekurtsioa jarri zuen. Honela, duela aste batzuk Euskal Herriko Naziotasun Aitormenaren tramitazioa eteteko agindua jaso zuen udalak, baina hala ere tramitazioak egiten jarraituko du.



HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17



Euskal presoak etxera!



MAHUKA

Gizon eta emakumezkoen modako arropa guzti hemen aurkituko du!

Udazkeneko moda berria zuretzat!

Etxebeste kaldea, 3- tlf. 943 36 11 06

12-15 urteko gazteekin egiten zituzten bilerak bertan behera utzi ditu Ziortza Gazte Taldeak



■ 1984. urtean sortua.

■ Sendotzako taldeak bilitzen badira ere, 12-16 urte bitarteko gazteen bilerekin ez dira hasi oraindik.

■ Gaur egun 5 monitore daude, baina garai batean 25 monitore ere izan zituzten.

■ Herriko talde hau hasi zen Usurbilen Santo Tomas eguna antolatzen. Aurten txistorra eta taloa saltzeko postua jarriko dute, baina errege egunaren bezperako kabalgata prestatzen ari dira burubelarri.

Ez dago bere unerik gozoeanean Parrokiko Ziortza Gazte Taldea. Sendotzan bi talde daude eta 18 gazte inguru azaltzen dira bileretara, baina gazteen taldeak ez dira hasi oraindik. Izan ere, barne azterketa bat egiten ari dira Ziortza Gazte Taldeko 5 monitoreak. "Iaz jende gutxi azaltzen zen bileretara. 12-13 urtekoak 20-25 etortzen ziren, baina 14-15 urtekoak hiru besterik ez. Monitoreak bilerak ondo atera zitezten saiatzen ginen, baina gazteek ez zuten erantzuten. Bilerak ondo ateratzen zen, baina ondorengo hiruak gaizki. Kanpaldian, berriz, alderantzizkoa gertatu zen; txikiak ez ziren joatera animatu eta besteak, aldiz, 30 inguru joan ziren".

Hau ikusita, kurtso hasieran planteamendu berri bat egitea erabaki zuten Maider Makazagaren esanetan. "Zer gertatzen ari da? galdera egin genuen gurekiko. Izan ere, gazteen artean balore falta handia ikusi dugu eta ez genuen asmatzen beraienkin.

Ondo pasatzera etortzen ziren, baina ekintza boikoteatuz". Hala ere, Usurbilen gertatzen denarekin harrিতa daude. "Beste herrietan 12-15 urte bitartean jende asko ibiltzen dute parrokietako taldeek, baina gero Sendotzara iristean ez dira joaten. Hemen alderantziz gertatzen da. Dena proiektu baten barnean badago ere, Sendotzan bi talde ditugu eta jendea oso gustora etortzen da".

Urtetik urtera monitore kopurua jaisten joan da, baita bileretara etortzen diren gazte kopurua ere bai. Izan ere, etxetik hasita beste arlo batzuei garrantzia handiago ematen zaiela uste baitute Ziortzako monitoreek. "Musika edo kirolak indar handiagoa dute eta honetara bideratzen dituzte. Horregatik gazteak ere interes handirik gabe etortzen dira bileretara. Horrez gain, Udaurregin 16 urte arte egoten dira orain eta hori nabaritzen da. 14 urterekin ikastetxe ezberdinetara joaten zirenean berriz elkartzeko lekua izaten zen Ziortza".

Honekin batera gazteen jarrera ere ezberdina omen da. "Denbora gutxian gazte jendea asko aldatu da. Orain dirua izaten dute, Urbil ere hor daago, edozein tokitara joateko askatasuna dute eta gu, agian, ez gara horretara moldatu. Hala ere, ahalik eta gazte gehiena gureganatu nahian ezin dugu ibili. Talde txikia dela? Horrekin lan egingo dugu. Kristautasuna modan ez badago ere jendeak garbi eduki behar du zertara datorren eta nongo taldea den Ziortza".



TABERNA-JATETXEA



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44



Igandetean ganba-ziri mundialak!

Baserriko produktuak kalera ateratzea da aurtengo Santo Tomas azokaren helburua

A benduaren 16an Santo Tomas azoka izango da herriko pilotalekuan.

Iazko bideari jarraituz, txistorra eta talo postuaz gain, azoka ere izango da. Baina aurtengoak badu berezitasunik, izan ere, baserrietan ekoizten den babarruna eta sagardoa epaituko baita bi lehiaketan bitartez. Herritarrek baserriko sagardoa dastatzeko aukera izateaz gainera, sagardoa epaitzeko tartea ere izango dute. Baserriko produktuak kalera ateratzeko saioa da Ziortzak, Noaual! Kultur Elkartek eta Udalak antolatutakoa. Gainera, Ixabel II.a euskal arrazako zerria ere bertan egongo da nork eraman zain.

Sagardoa eta babarruna betidaniko eta ohitura handiko produktuak izan dira Usurbilen. Sagarrondoa landatzea eta sagardoa egitearen ohitura garrantzi handia izan du beti.

Baina gaur egun sagardoak herriko baserrietan bizi duen egoerak ez du zerikusirik 20ko hamarkadako urteekin alderatuz.

Goiko Errotako Bixente Mugu-
ruzak esan digunez, "*orain dela 70 bat urte inguru, nik 60 karga ezagutu nuen. Karga bakoitzak 150 litro ditu. Lehen sagar asko zegoen Usurbilen, orain, ordea, gutxi egotez gain, oso baserri gutxitan egiten da sagardoa*".

Azken mende hauetan gorabehera asko izan ditu sagardoaren produkzioak. XVII. mendetik aurrera, Euskal Herriko sagastiak gero eta urritzagoak dira eta artoaren laborantzak sagardoaren gainbehera ekarri zuten. Sagastiak artasoroengatik ordezkatzeko dira. Gainera, Araban eta Nafarroan zegoen ardoa edateko ohitura Euskal Herri osora zabaltzen da sagardoaren kalterako. Azkenean sagardoa neurri txikietan produzitzen da eta baserrietako kontsumorako soilik.



1930. urtetik guda zibila hasi arte, Gipuzkoako Aldundiak sagarrondoaren landaketa eta sagardoaren produkzioa sustatzeko saiakerak egin zituen, baina guda zibilean atzerakada izugarria eman zen berriz ere. Guda zibila amaitu zenean, Frankoren erregimenak bere produkzioa eta kontsumoa debekatu egin zituen. Lurralde-tasunaren kontra erregimenak burutu zuen errepresioaren ondorioz izugarri jaitzi zen sagardo kontsumoa eta edariak bizi-raungo ote zuen beldur ziren asko.

Gainera, Gipuzkoako baserri-tarrak papera eta eraikuntzarako erabiltzen zen egurra lortzeko pinua landatzearen abantailaz ohartu ziren eta sagasti osoak ipurditik atera eta sagastiak pinuengatik ordezkatu zituzten. Bere garaian artoak hasi zuena, pinuak bukatu zuten.

Bestalde, beste motatako edarien kontsumoak, ardoa eta garagardoa gehien bat, 50ko hamarkadan indarra hartu zuen eta honek sagardoaren behe-rakada bizkortu zuen. Usurbilen ere, Gipuzkoa osoan bezala, fenomeno hauek izugarriko eragina izan zuten sagarraren ekoizpena uzteko.

Gorostidi baserriko Manuel Etxeberriaren esanetan, "*garai batean sagastiek ez zuten laguntzarik izan. Pinu famatu hori etorri zen eta pinuak urte gutxitan benefizio onak ekarri zituen. Gainera, hemengo sagarrari ere desprestigio handia egin zitzaion. Euskal Herrian sagasti asko zegoen, baina ez zitzaion kasurik egin eta ez zen sagastia apreziatu. Orduan, baserriarra aspertu egin zen eta errezena egin zuen; sagarra moztu eta pinua sartu. Horregatik, bukatu da hemengo sagastia*".

70.hamarkadan egoera honi buelta ematen hasten zaio. Sagardotegien berragerpena ematen hasten da, baita sagardoaren kontsumoaren igoera ere. Bertako barietateak bildu eta sagastien landaketa bultzatzen da. Edariaren ekoizpena bultzatzeko hainbat elkar-te sortuko dira eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ere sagastien landaketa bultzatzeko laguntzak emango ditu. Manuel Etxeberriaren arabera, "*baserri-tarrak ez du inoiz laguntzarik izan eta ikusi denean sagarrondoak hondoa jo duela, orain hasi da diputazioa laguntza ematen. Sagastiak landatzen hasi da berriz ere, baina orain dela 50 urteko sagastiak ez dut uste*".

berrero ikusiko direnik Euskal Herrian”.

Hala ere, Usurbilen badaude oraindik sagardoa egiten duten baserriak. Guztiek etxeko kontsumorako egiten badute ere, abenduaren 16an egingo den Santo Tomas azokan hauek dastatzeko aukera izango dute herritarrek. **Hona hemen parte hartuko duten baserriak: Zugasti, olanoe-nea, Aintzi Zahar, Arratzain, Arratzain Berri, Etxefxo, Gorostidi, Goiko Errota, Zumitza, Muñiota eta Txantxon.** Herriko hainbat baserrietan egon gara bertan egiten duten sagardoa ezagutzeko.

Arratzain baserrian betidanik egin izan dute sagardoa. Egun 9.000 litroko kupela betetzen dute, nahiz eta kopuru hau baino gehiagoko urteak ezagutu izan dituzten. Bertako Josefa Alberdik esan digunez, *“sagardoa egitea oso lan neketsua da. Guk egurrezko kupela dugu eta oso garrantzitsua da sagardoa ona lortzeko kupela ondo garbitzea, sagardoak usain txarra hartu ez dezan. Zainketa eta arreta handia eskatzen du”.*



Goiko Errota baserrian 700 litro egiten dute, bertan duten bukoia betetzeko adina. Hemen ere betidanik egin izan dute sagardoa, nahiz eta egin gabeko urte batzuk izan zituzten, sagardoa egiteko adina sagar ez zegoelako. *“Sagarra zahartu egin zitzaigun eta ez genituen gazteak landatu. Urte batzuk beranduago landatu genituen”*, esan zigun Bixente Muguruzak. Abelaia, kexeta-gorria, bixkaia, torre-zaharra, errege-sagarra, txalaka, denetarik zuten eta sagar-klase guztiak nahasteko ohitura zuten. *“Zenbat eta sagar-klase gehiago, orduan eta sagardo onagoa. Sagar-akeraketa ona egin behar da,*

horixe da sagardogintzaren gakoa”. Egun ez dute hainbeste sagar-barietaterik.

Bixente Muguruzaren ustetan, baserrietan egiten den sagardoa sagardotegietan egiten dena baino lodiagoa da. *“Kolorea ere ezberdina da. Sagardozaletan egiten duten sagardoa berdeagoa da, baserrikoak, aldiz, lasto kolorea du”.* Sagardoa ona izateko ze ezaugarri izan behar dituen ere esan digu: Sagardoak ez du goxo-puntturik izan behar, upel edo kortxo usain arrastorik gabea, sagardoa edalontzira botatakoan txinparta bizia sortu behar da eta ontzitik ateratzera-koan ez du belztu behar.

Gorostidi baserrian 10.000-12.000 litro egiten da. Inguruko baserrietarako ere egiten dute. Etxeko sagarra erabiltzen dute, 15.000, 20.000, 30.000 kilo bildu izan dituzte sagar-urtea izan bada, nahiz eta batzuetan 5.000 kilo baino ez bildu. Sagar heldua, garbia eta uterakoa bildu behar da. Hona hemen, beraz, sagardoa egiteko hainbat aholku.

Agurtzane Solaberrieta

Pili Arroyo: “Era honetako azokak maizago egin behar dira, bertako produktuak erosteko ohitura hartzeko”

Sagardoaz eta txistorraz gain, egun horretan ere izango da beste protagonistarik: babarruna. Izan ere, aipatu bezala, barrun lehiaketa egongo baita. Babarruna frexkoan epaitukoa da, aletuta eta guztira 25 babarrun ekoiz-

lek eman dute izena. Epaimahai lanetan herriko jatetxeetako sukaldariak egongo dira.

Bestalde, azokan zazpi postu jarriko dira: **Goenaga, Zugasti, Markel Olaizola, Etxarri, Lartzandieta, Joxe Torregarai eta Urtinea.** Barazkiak, oilaskoak, loreak, behi-esnea, yogurrrak, gazta, intxaurrek eta kalitatezko haimaika produktu egongo da ikusgai eta saltzeko pronto. Iaz Zubieta-ko Zugasti baserriko Pilar Arroyoren postuak eraman zuen I. Santo Tomas azokako saria.

Aurten ere postua jarriko du eta beste bi lehiaketetan ere parte hartuko du. Bere ustetan, *“garrantzitsua da herrian horrelako azokak antolatzea. Ni Lasartera joa-*



ten naiz, eta jendeak ohitura handia du azokan erosketak egiteko. Iaz ez zen asko saldu. Agian ohitura falta izan daiteke. Hilabeteetan behin edota urtean egun zehatzetan azokak egingo balira, jendea ohituko egingo litzateke eta ez luke alde zurretik erosketarik egingo”.

BABARRUN LEHIAKETA

- | | |
|----------------------|------------------------|
| - Berritza Barrena | - Migel Arrastoa |
| - Aldatxa | - Kale baserria |
| - Olanoeña | - Lartzandieta |
| - Zugasti | - Gorostidi |
| - Portu | - Bixenta Manterola |
| - Arratzain berri | - Patxi Labaien |
| - Arratzain | - Giko Errota |
| - Markel Olaizola | - Martzelino Iturralde |
| - Mikel Rekondo | - Aldagorri |
| - Pedro Mari Matxain | - Zumitza |
| - Etxarri | - Bizkarre |
| - Gaztañaga | - Berritza bitarte |
| - Pokopandegia | - Martin Irazusta |

Irisasi etxetik alde editeko agindua jaso dute okupek

Txokoaldeko Irisasi etxean edo guarda etxean hainbat pertsona baimenik gabe bizi direla jakin ondoren, Foru Aldundiko Gizartekintza Departamenduak etxe honetako bizilagunak kanporatzeko neurriak hartzea erabaki du Foru Agindu baten bitartez. Azaroaren 21ean bertatik aldegitoko 48 orduko epea eman zien bertako okupek. Hauek joan ez direnez, bertatik bidaltzeko espediente judizial bati ekin diote.

Urte t'erdia pasa da okupa talde batek guarda etxeaz ezaguna den Txokoaldeko Irisasi etxea okupatu zuenetik. Etxe hau hutsik zegoen eta egoera oso tamalgarrian, baina leku desberdinetatik etorritako okupek bere etxebizitzatza hartu zuten. Orduetik hona jende dexente pasa da handik. Gaur egun 10 pertsona inguru bizi badira ere, hauetatik hiru herrian errolatuta daude, egun batzuk pasa eta alde egiten dutenak ere asko dira.



Beraien esanetan etxebizitza duin bat bihurtu nahi dute Irisasi etxea. *"Autogestioaren bidez eraikitako gune sozial bat sortu nahi dugu, guk bultzatutako ekintzen bidez finantzatuko dena. Azken urte honetan herriko nahiz kanpoko taldeekin bost kontzertu egin ditugu, baina festa ez da guztia, jana, osasuna, ura, lurra etab. autogestio-natu nahi baititugu"*.

Baina dena ez da larrosa kolorekoa, auzoekin arazo batzuk izan baitituzte azken hilabeteetan. Okupen txakurrak auzoan askatasun osoz ibiltzen direla, hauek ardiak izutzen dituztela, Akerra gaztetxean kontzertua dagoenean goizaldera etxeraterakoan zarata ugari ateratzen dutela etab. salatuz firma bilketa egin eta udalari neurriak hartzeko eskatu zioten auzoek.

Orain, Foru Aldundiko Gizartekintza sailak judizio espediente bat ireki die Irisasi etxeko okupek. Bertan adin txikikoentzako erreformategi bat egin behar dutela eta, bertatik joateko bi eguneko epea eman zien, baina Irisasi etxea utzi ez dutenez judizio espediente bat ireki die. Okupek pasa den abenduaren 1ean Udaregi zaharreko aretoan egin zuten asanblada informatiboan adierazi zutenez, ez dute Irisasi etxea uzteko asmorik. Donostiako okupen kasuan lan egin zuten abokatu taldearekin harremanetan jarri eta agindu honen aurka alegazioak aurkeztu dituzte. Bien bitartean etxearen zaintza egiten ari dira egunea 24 orduz.

► Istripua

Astigarragako Larraitz Olaizola 26 urteko gazteak bizia galdu zuen pasa den azaroaren 28an Usurbildik Kalezarko autobus geltokira iritsi baino lehen N-634 errepidean izan zen istripuan. Arratsaldeko 16.10ak aldera kamioi batek eta Ford Transit furgoneta batek aurrez aurre elkar jo ondoren, suhiltzaileek zauri larriak zituen furgonetako gidaria burdin artetik ateratzea lortu bazuten ere istripua izan zen leku berean hil zen Larraitz Olaizola. Istripuaren ondorioz errepidea itxita egon zen 19,15ak arte.

► Pelotako finalak

Iñaki Errekondo eta Mikel Arroyo bikoteak irabazi zuen lau t'erdiko VIII. txapelketa, iazko garaipena errepikatuz. Ibarreta eta Troyaren aurka jokatu zuten finala eta azken emaitza 22 eta 9 izan zen. Hirugarren postua Harkaitz-Muxa eta Unai-Euxebio bikoteen artean lehiatu zuten. Partida honetan Harkaitz eta Muxa izan ziren garaile 22 eta 19 nagusitu ostean.

► Lapurreta

Joan den azaroaren 20an lapurreta izan zen Euskadiko Kutxak herrian duen egoitzan. Goizeko 9.00ak aldera moto txiki batean etorri zen ezezagun bat kaskoa jantzita zuela sartu, pistola txiki batekin bertakoak mehatxatu eta 500.000 pezeta inguru eramatea lortu zuen. Momentu horretan bertako langileak eta herritar bat zeuden bertan, baina ez zen zauriturik izan. Ez da modu honetara burutzen duten lehenengo lapurreta, duela aste batzuk Orion ere berdina gertatu baitzen.

Kultur Hilabeteari hasiera eman zaio



Zumarte Musika Eskolako Kontzertuak eman zion hasiera kultur hilabeteari azaroaren 22an. Egun horretan bertan ere, Aitor Landaluzek eta Jexus Agirresarobek bost herritarrek asto batekin egindako mendi trabesia izan zuten mintzagai. Saio honek ikusmira handia sortu zuen, 40 lagun inguru bildu baitzen Udaregi Zaharreko erdiko aretoan.

Azaroaren 24ko arratsaldea

alaitzeaz Kulki taldea arduratu zen. Gaztetxoei Euskal Herriko hainbat herritan umeez erabiltzen zituzten jolasak ezagutzeko aukera eskaini zieten "Herri kirol eta baserri jolasak" saioaren bitartez. Lasto altxaketa, eskuorgak, ahari talka, txinga erute, ingude altxaketa, laia lasterketa... denetarik egin zuten, ez hain gaztetxoek ere.

Santa Zezili eguna zela eta, txistulari taldeak ere bere

emanaldia eman zuen azaroaren 25eko igande goizean.

Bestetik, HIKA antzerki taldeak "Oihanaren legea" antzezlanaren aurkeztu zuten ostiral gauen. Herritar gutxi gerturatu bazen polikiroldegira, saio polita eskaini zuten Mikel Lascurain eta Lierni Fresnedo aktoreek. Antzezlanak Indalezioaren ausardiak, Rikardoren penak eta Guadaluperen bizinahiak kontatzen ditu, umorez beteriko eszenen bitartez.

Julito Arias eta Aurelio Amos musean txapelkun



Aurten ere kalezartarrak izan dira nagusi Elkar-teen arteko mus txapelketan. Peña Pagola elkarteko bi bikoteak iritsi ziren azken musaldira eta Pedro Mari Matxain eta Joxe Makazagak osatutako bikoteari irabazi ondoren Julito Ariasek eta Aurelio Amok eskuratu zuten txapelketa. Andatzpeko Txomin Goenagak eta Pello Zubeldiak eskuratu zuten 3. postua eta Aitzagako Iñaki Aizpurua eta Andoni Aizpeoleak laugarrena. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkie saritzat afariak eman dituzten Saltxipi, Atxega, Saizar, Antxeta, Alaman-degi, Patri eta Aginaga Sagardotegiari.



Erlojua tokatu zaizula esan eta 3500 pezeta inguru ordaindu behar

Erloju bat tokatu zaizu. Postetxera joan eta bidalketa kostuak ordaintzearekin batera zure eskumuturrean jartzeko moduan izango zara. Hau esanaz Sevillako enpresa baten hainbat dei jaso dituzte herritarrek azken urte f'erdian. Batzuek joko horretan erori eta erlojuaren bila joaten dira, baina bidalketa gastuak ordaintzerakoan etortzen da ezustekoa, 3500 pezeta inguru ordaindu behar baitira. Iruzur baten aurrean ote gaude?

Bidaia bat tokatu zaizu, urrezko lepoko bat irabazi duzu... honelako esaldiekin hainbat eta hainbat panfleto jasotzen ditugu urtean zehar etxeko postontzian. Azkenean, ordea, horrelakoak ezerezean gelditzen dira, hori eskuratzeko diru kopuru bat ordaindu behar izaten baita. Honelakoetan azpijokoaren usaina hartzen diogu, eta etxeko sutara edo birziklapeneko ontzietara bideratzen ditugu.

Azken urte f'erdian, ordea, telefono bidez erlojuak saltzen saiatzen ari da Sevillako enpresa bat. Hainbat herritarrei deitzen die erloju bat tokatu zaiela esanaz eta hau eskuratzeko modua erraza izaten da: erlojua postetxera bidaltzen dute eta bidalketa gastuak, "bakarrik", ordaindu behar izaten dira. Herritar batek esan digunez iaz bere amaginarrebari deitu zioten erlojua tokatu



zitziola esanaz eta postetxera joan zirenean, hau eskuratzearren truke 3500 pezeta inguru ordaindu behar zituztela esan zien postariak. "Guk ez genuen "oparia" hartu, bidalketa gastuak bakarrik ordaindu behar zirela esan baitziguten eta 3500 pezeta ordaintzea gehiegi iruditu zitzaigun. Izan ere, erlojua bidaltzen badizute ere, nahi baduzu ez duzu hartzen".

Erlojuaren truke jendeak 3500 pezeta ordaintzen ditu

Aurten ere herritar ugari jaso du Sevillako Intergall enpresaren deia eta jendea "oparitutako" erloju horren bila joaten dela esan digu herriko postariak. "Orain lauzpabost erloju bakarrik dauzkagu, baina duela hilabete batzuk 100 erloju inguru eduki genituen hemen. Bidaltzen dituzten erlojuetatik %40 inguru eramaten ditu jendeak. Hala ere, iruzurra izan daitekeelakotan nago. Bidaltzekoaren bidal-

keta kostua ez da 400 pezetara iristen, baina erlojua jaso nahi duenak 3500 pezeta inguru ordaindu behar izaten ditu. Erloju horiek horrenbeste balio dutenik ez dut uste". Jendeak jasotzen ez dituen erlojuak, bere jatorrira itzultzen dira eta kostu hori enpresa horrek berak hartzen du beregain. "Jendeak erlojuak hartzen baditu beraiek ateratzen dira irabazten, bidalketa gastuak ez baitira 1000 pezetara iristen".

Honelako deiak ez dira Usurbilen bakarrik izan, inguruko herrietan ere horrelako zerbaitek gertatu da. Hala ere, Lasarteko Kontsumitzaileen bulegoan ez dute honen berririk. "Telefonoz egiten dituzten dei horiek saltzeko modua bat dira. Zerbaite tokatu zaizula jartzen duten panfletoei ez zaie kasurik egiten, baina zuzenean deia jasotzen denean jendea engainatzea errazagoa izaten da".

Josu Aranberri

**BORDATXO
EDARITEGIA**

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42



**TXIRIBOGA
TABERNA**

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

105U

Ugaldea poligonoa 36 - 2º Esk
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETa
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

“Txapelketa honetan zortzi onenen artean sartzeak ilusio haundia egin dit”

Martin Alustizak 40 urte egingo ditu abenduan, eta egun jokatzen ari diren pelotarien artean zaharrena da. Hala ere, zer irakatsirik baduela erakutsi du aurtengo lau t´erdiko txapelketan. Esain eta Nagoreri irabazi ondoren azken laurdenetan Barriolaren aurka galdu eta txapelketari agur esan badio ere oraindik punta-puntan jarraitzeko asmoa duela esan digu Segurako pelotariak.

Gustora lau t´erdiko txapelketan egindako lanarekin?

Orokorrean bai. Hasi aurretik Esain eta Nagoreri irabazi behar niela esan balidate sinatuko nuke. Udaran goi mailako partida asko jokatu gabe nengoen eta jendeak ea pelota utzi nuen ere galdetzen zidan. Txapelketa honetan zeresan pixka bat emateak ilusio haundia egin dit. Hala ere, Nagoreri irabazi ondoren aurreraxeago iristeko aukerak banituela pentsatzen hasi nintzen, baina partidari bertan Barriola ni baino gehiago izan zen eta argi eta garbi dominatu zuen partida.

Partida horretan zerbaite gehiago egitea espero al zenuen?

Hasiera batean partida irabazteko itxaropena banuen. Sakearen ondoren arriskatuz min pixka bat egin niezaiokeela uste nuen, baina partidari bertan Barriolak ez zidan ia ezertarako aukerarik eman.

Oraindik goiko mailan ibiltzeko moduan ikusten al duzue zure burua?

40 urte ditudala kontuan hartuta azkenengo zortzi pelotarien artean sartzea nahikoa pozgarria da eta noiz arte ez badakit ere, hemendik aurrera ere hor goian jarraitzeko asmoa dut.



Badakit erraza ez dela izango, atzetik indarrez datozen pelotari gazte asko baitaude, baina nire burua nahiko ondo ikusten dut. Pausoz pauso eta nire buruari helbururik jarri gabe gorputzak ematen duen arte jarraitu nahi ko nuke. Hori bai, enpresak gazteei aukera gehiago ematea da normalena.

Udan punta-puntako partida gutxi jokatu zenituen ezta?

Bai, eta kezkatuta ibili nintzen. Normala den bezala enpresak pelotari gazteei aukera gehiago eman dizkie eta guk, zahartzen ari garen heinean, bigarren mailakoak jokatu ditugu. Horrek nire karrera pixkanaka-pixkanaka amaitzen ari dela esan nahi du. Dagoeneko badakit oso gutxi gelditzen zaidala.

Bi-bitako txapelketako finala galitzeak pena eman zizun.

Izugarrizko egurra hartu nuen. Aspaldi final bat jokatu gabe nengoen eta bi-bitako txapelketako finalera iristea gauza haundia izan zen niretzat. Txapelketa eskura izan eta ez harrapatzeak pena haundia eman zidan. Txapelketa bat irabazteko azken aukeretako bat izateaz gain, bi-bitako txapelketan parte hartzen nuen azken aldia izan zitekeen.

Datorren urteko txapelketa jokatzeko itxaropenik ez hala?

Jokatzeko aukerak badituz, baina enpresa bakoitzetik zenbat bikote ateratzen diren ikusi beharko da. Azkenengo txapelketan Asegarcere enpresak sei bikote aurkeztu zituen eta datorren urtekoan ere kopuru hori mantentzen bada jokatu dezakedala uste dut. Enpresa bakoitzak lau bikote jartzen baditu nahikoa zaila izango da.

Abenduan 40 urte beteko dituzu. Noiz arte jarraituko duzue pelotan jokatzen?

Asegarcerekin dudari kontratua ekainaren 30ean bukatzen zait, eta orain bezala baldin banago beste urtebetez jarraitzeko prest egongo nintzateke.

Eta pelota utzi eta gero zer?

Pelotaz gain beste lan bat ere egiten dut aspaldi honetan eta horri heldu beharko diot. Hala ere, ez dakit nola, baina pelota munduarekin lotuta jarraituko dudala uste dut. Zortzi edo bederatzirekin hasi nintzen pelotan eta nire bizitza osoa horretan eman dudanez mundu horretan jarraituko dut beti.

Urtero 700 komunikazio-egintza banatzen ditu herriko Bake-Epaitegiak

Bake-epaitegia da Justizia-administrazioa eta herri txikien arteko bitartekaria. Usurbildarren arteko larritasun gutxiko gertakariak bertan konpontzen saiatzen dira eta horrez gain, errejistro zibila ere beraien esku dago; bi hitzetan esanda, jaiotzak, heriotzak eta ezkontzak bertan inskribatu behar izaten dira. Kale Nagusian duten egoitzara joanez gero, bi idazkari topatuko dituzu bertan: Begoña Ameztoy eta Pedro Silva.

Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan irekita egoten da herriko Bake-epaitegia. Duela gutxi arte udaletxeko bulego batean egoten ziren, baina orain egoitza berria dute Kale Nagusian. Izan ere, Bake-epaitegia ez dago udalaren menpe, Estatu Justizia Administrazioak 7000 biztanletik behera dituzten udalerrietan eskaintzen duen zerbitzu bat baita.

Bake-epaitegian errejistro zibilari buruzko edozein gai aztertzen da. Herrian haur bat jaiotzen bada, eta gurasoek umea usurbildarra izatea nahi badute, bertara joan eta errejistro zibilean errejistratzea ezinbestekoa izaten da. Bertan aurkituko dituzu azken urteetan Usurbilen jaio diren haurren izen abizenak, baina Begoña Ameztoyen esanetan horrekin lotura duten hainbat eginbide ere beraien esku daude. "Gaur egun jendea herri batetik bestera askotan mugitzen

baita eta herrialde batetik bestera ere. Duela gutxi brasildar bikote batek seme bat izan du Usurbilen eta espainiar nazionalitatea izan dezan eginbide guztiak guk egin behar izan ditugu".

Ezkontzak, Dibortzioak eta jakinarazpenak

Ezkontzak eta heriotzak ere Bake-epaitegian errejistratu behar izaten dira. Udalerrian izandako ezkontza guztien inskripzioak, heriotzen inskripzioak... Begoña eta Pedroren eskuetatik pasatzen dira. Eta baita dibortzioak ere, bikote ezkondu bat banantzen denean ezkontzarmena ezabatzea beraien eginbeharra baita.

Errejistro zibilaz gain, ordea, Bake-epaitegiak eginkizun ugari ditu. Epaitegiren batek eskatutako komunikazio-egintza edo eginbideren bat jakinaraztekoan Bake-Epaitegira joan behar izaten dute herritarrek. "Azken finean, gu Justizia administrazioaren bitartekariak gara. Urtero 700 jakinarazpen inguru egin behar izaten ditugu Usurbilen. Epaitegiren batek eskatuta herritar bati epaiketa

batera joan behar duela, alkoholemia kasu bat duela, Aurrezki Kutxarekin zuloa duela... guk esan behar izaten diegu. Askotan herritarrei nahigabe bat ematea bezala da".

Eginbide horiek epaiketa bizkortzeko oso garrantzitsuak dira, eta joaterik ez duenak Bake-Epaitegiari jakinarazi behar izaten dio. Hala ere, herritar batzuk ez die jakinarazpen hauei kasurik egiten. "Bake-epaitegira etortzeko deia jasotzen duten gehienak azaltzen dira, baina badaude jakinarazpena behin eta berriz bidalita ere azaltzen ez diren batzuk".

Hitz eginez konpontzen dituzte salaketak

Herritarra edozein gertakiriri buruzko salaketa jartzera ere joan daiteke Bake-Epaitegira. Bertan larritasun gutxiko epaiketak bakarrik egiten dira, baina azken urteetan Elena Zaldua Bake-Epaitegiak ez du lan askorik izan. "Auzoen arteko, anai-arreben arteko edota senar-emazteen arteko irainak izaten dira gehienetan, baina aspaldian ez dugu horrelakorik izan. Kasu horietan, bake-epailearekin batera, beraien hitz eginez konpondu nahi izaten dituzten arazoak. Auzoak erropa zikintzen zidan edota nazkagarria deitu dit aldamenetik pasatzerakoan... honelakoak epaitegira eramatea ez da ona, hobe da gauzak beraien hitz eginez konpondu eta elkar adiskidetzea".



Merkatariek euskarazko harreman sarea bultzatzeko inizatiba dute

Ez da erraza bere komertzioa erabat euskaldunduta ez duten dendariak aurkitzea Usurbilen. 1998an buruturiko kanpainak utzitako fruitu onaren seinale. Gaitzerdi!

Baina, guztia euskaldunduta edukita ere, merkataritza euskalduntzeko bidean hain garrantzitsua den konpromisoa hartu dute; hau da, udal, finantza erakunde, eta abarren idazkiak euskara hutsez jasotzeko prestutasuna erakutsi dute askok. Azken aleetan eman dugu horren berri, azken aste honetan honakook hartu dute: **Alkartasuna kooperatiba, DIA, MUR, Esnaola, Zumeta, Urtinea, Aldatz, Truke, Araeta, Barazar, Bugati, Txi-**

kierdi, Zaldua eta Aginaga sagardotegia.

Gainera, hornitzaileei honako hau dion eskutitza ere bidaltzeko ausardia erakutsi dute: *"Zure bezero naizen aldetik, zuregana jotzen dut honako hau azaltzeko: Usurbil, herri euskalduna dugu, herritarren hiru laurdenak euskaldunak gara eta euskara gizarte-ko arlo guztietara hedatzea, beraz, usurbildar gehienon nahia da.*

Nere aldetik, usurbildar merkataria izanik, euskararen normalizazio bidean, euskara dut lan-hizkuntza eta nire lan harremanak bada, euskaraz burutu nahi ditut. Hau dela eta, zuregana jotzen dut hurren-

goa eskatzeko: gure arteko merkatal harremanak, hitzezkoak nahiz idatzizkoak euskaraz burutu ditzagun, niregana euskaraz zuzentzea eskertuko nizuke".

Konpromiso mota hau hartu duten merkatariek asko dira.

Bestetik, euskarazko ikastaroretara **Arrate Egoitzako** langileak animatu dira.

Azkenik, ageriko idazkiak eta idazki propioak euskaraz izateko konpromezua hartu dutenak honako hauek dira: **Mur errotuloak, Urtinea, Esnola, Bugati eta Arrate egoitza.**

Beraz, aipatu eskutitza eskuratu nahi baduzu, etorri Noaualko egoitzara.



ARGAZKI ERAKUSKETA

UDARREGI ZAHARREAN Abenduaren 19tik 30era

Usurbilgo Udala eta Noaua! Kultur Elkartearen babesarekin erakusketa antolatu du Usurbilgo Udal Fototekak. Bertan argazki zaharrak zein berriak ikusteko aukera izango duzu.

Erakusketaren aurkezpena abenduaren 20an egingo da, arratsaldeko 18:30etan.

ZAT OZ!!!

Usurbildik Durangoko Liburu eta diskoen azokara bidaiatuz

Durangoko Liburu eta Diskoen Azoka abenduaren 5ean zabalduko dute. Euskal kulturaren ispi-lu nagusia den honetan mota guztietako liburu eta diskoak aurkitzeko aukera izango dugu aurfen ere eta bertako standetan ikusiko ditugu zenbait usurbildarren izenak ere. Izan ere, Yolanda Arrieta, Labrit Zabala, Haritz Harreguy (4 itzal) eta Joseba Tapiak azokaren atarian argitaratu dituzte beren liburu eta diskoak.

Durangoko karpa erraldoian liburuaren aldera jotzen badugu hor nonbait ikusiko dugu Yolanda Arrietaren "Jostorratza eta haria" liburua. 1997an Irun Hiria jaso zuen liburu honek, eta orain, berridatzirik eman du argitara Alberdaniaren eskutik. Izan ere, Kutzak liburu hau argitaratu bazuen ere aldaketa batzuk egin nahi izan ditu Bizkaiako Etxeberri herrian jaio eta azken urteetan Usurbilen bizi den idazleak. "Liburu erditi-aurrera aldaketa dexente egin ditut. Oinarri modura aurreko liburua hartuta txukundu, konpondu, moztu, argitu... itxura aldatuz beste mugimendu bat eman nahi izan diot liburuari".

Istori-historia honen muinean, ama batek jaiotzearen dagoen alabarentzat kontatutako istori-historia dago. Idazleak berak betetzen du amaren papera, bere amak amamarena eta amonarena, berriz,



bere aitaren amak. Familia hau oinarritzat hartuta ekiten dio idazleak bidaiari, "gaur egunetik atzerantz, mitoraino". Oinarri erreala badu ere, "Jostorratza eta haria" fikzioa da %99.

Liburu honetan gauza ugari josten ditu Arrietak: gazteak zaharrek, natura kulturarekin, basoa herbeherarekin, herria hiriarekin, berbeta txikiak hizkera haundiekin, tradizioa modernitatearekin. Hauek guztiak josiz, "historiaurretik abiatuta, batez ere azken mendeari ematen dio bira". Kontalariak pertsonaiak dira eta aldatuz doaz unean-unean, eta eurekin euskalkiak ere aldatu egiten dira, bakoitzak bere hizkera izango baitu.

Bere burua gazte ikusten duen edonorrentzat liburu hau egokia izan daitekeela uste du Yolanda Arrietak. "16 urtetik

gorako gazteetatik hasi eta helduek ere irakurri dezakete liburu hau. Ahalik eta hizkera ulerterrezena erabiltzen ahalegindu naiz, baina liburuaren mamia umeez ulertzeko modukoa denik ez dut uste". Liburu hau errazago irakurtzeko beste usurbildar baten ilustrazioak tartekatzen dira gainera, Antton Olariagarenak hain zuzen ere.

Haritz Harreguy 4 itzal taldearekin

Liburuak alde batera utzi eta karparen beste aldean egon ohi den diskoen sailera joaten bagara zenbait usurbildarren azken lanak ikusi eta erosteko aukera izango duzue. Haritz Harreguyk Sen taldearekin jarraitzen badu ere, talde desberdinetako musikariek baten bate-ra 4 itzal talde berriekin diskoa atera berri du. Oihuka dis-

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:



kutxa
zuri esker

ESTETIKA ZENTROA

LOURDES LARRAÑAG

- Depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Manikura
- Betileen permanentea eta tintea
- Azaleko garbitasuna
- Makillajea
- Masajeak
- Solariuma

Irazu kalea, 12-behea (Paris etxea)
Telf: 943 36 28 87

ketxearen eskutik kaleratu dute "Denek dakite" lehen lan hau, eta gitarra jotzeaz gain, grabazio, produkzioa eta nahasketa lanak egin ditu herritarrak.

Etzakit taldeko Xabi Solano abeslariaren proiektu berri honetan, Kashbadeko Haritz Beristainek jotzen du bateria eta Utikan eta Mugatik taldeetako Koldo Soretetik baxua. Hala ere, Haritzek esanetan proiektu berri batean murgildu izanak ez du adierazten beste taldeen garra itzaliko denik. *"Beste taldeek ere aurrera bidea egiten jarraituko dute. Proiektu berri hau, Etzakit, Utikan-Mugatik, Kashbad eta Sen taldeen itzala izango da eta hortik dator-kio talde berri honi izena"*.

4 itzalekin kontzertu dexente ematen ari badira ere Haritz Harreguy eta Sen-eko beste musikariak bigarren diskoa prestatzen hasiak dira dagoe-neko. Zenbait abesti berri badituzte eta datorren urteko udaberrirako kaleratu nahi dute bigarren disko hau.

Labrit Zabalak bere bigarren diskoa kaleratu du


Oihukaren standean beste usurbildar baten bakarkako lana aurkituko dugu. Labrit Zabalak "Nori egin so!" bere bigarren lana kaleratu du eta oraingoan musikari berriak izan ditu bidaiakide, hain zuzen ere, Kandi Fernandez produkzioan eta teklatuan, Dani Riaño gitarra eta ahotsean, Juanjo Falcon baxuan, eta aurreko diskoan ere parte hartu zuen Jimi

Arrabit, baterian. Labriten esanetan taldekideen aldaketa zerbait naturala izan da. *"Musikari profesionalak direla pentsatu behar da, eta, ondorioz, bakoitzak bere zereginak izaten ditu. Ezin da pentsatu zureak direnik, alderantziz, beraiek atzean daude eta hor egiten dute beraien lana"*.

Disko honekin Labritek aurrera jarraitzea lortu nahi du. *"Disko honekin, nire lanean sinestea lortu dut eta sinisten dudan einean gehiago transmititzen dut"*. Orain arte bakarka konposatu izan badu ere, "Nori egin so!" bere lan berrian beste batekin batera konposatu ditu hiru abesti. *"Beti bakarka konposatu izan dut, nire unetxoetan, baina, oraingoan, Dani Riaño gitarra jolearekin konpartitu ditut hiru abesti eta oso esperientzia polita izan da, bion ekarriekin mestizajea sortu baita"*.

Lasartearra bada ere, bere burua usurbildartzat duenez, Joseba Tapiari ere lekutxo bat egingo diogu, izan ere Koldo Izagirreraren laguntzaz Espainiako gerran Euskal Herrian sortu-tako hainbat kantu berreskuratu ditu Durangoko azokan aurkeztuko duten "Agur Intxorta maite. 1936-37 Gudako kantuenak" diskoan.

1936ko Espainiako gerraren barruan Euskal Herrian izandako zenbait gertakizun historiko-



ren gainean egindako kantuen bilduman Basarri, Telesforo Monzon, Iratzeder, Joxemari Lopetegui eta Joan Ezenarro idazleek eta zenbait egile anonimok idatzitako testuak aukeratu dituzte Tapiak eta Ezenarrok, eta Lasarteko soinu joleak musika jarri die, kasu gehienetan galdu egin baita jatorrizko doinua. *"Abesti horietako asko kantatuak izango ziren ziur aski, baina doinurik ez da gelditu, Euzko Gudariak-ena besterik ez. Gehienak bertso formatu-koak dira, eta nik sortu dizkiet doinuak, lau bat kanturi izan ezik. Garai hartan entzungo zutena irudikatu dut, eta denetarik pixka bat sartu dut"*. Azken finean tangoak, porrusalda tankerako doinuak, trikiti-xa pixka bat... denetarik aurkituko dugu disko honetan.



kafe berezia

San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70

20170
USURBIL



Kima
MASAJE LEKUA



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



Garikoitz Agorreta

- ❑ Elektronika injeniaria
- ❑ Eskiatzea eta bidaiatzea ditu gogoko

Din, dan, don... Gabonak!

Din dan don, din dan don, eguberri on,.... Bai, lagunok bai, dagoeneko gainean ditugu berriro ere Gabonak. Eta berarekin batera kaletako argiak, gabon kantak umeen ahotsetan, eta telebistan: Barbie, Scalextric, turroi eta bestelako produktuen bonbardaketa latza, EEBBtako B52 hoiek egiten duten antzera. Aurtentzen halere Pirineotako mendi gailurretatik, eta uda guztia AEKn igaro ondoren, gonbidatu berria izango degu gure arten, Kamiltxo.

Ah, eta ez degu Olentzero ahaztu behar, ea aurtengo honetan zerbait merezi dudan eta zertxobait uzten didan... Dirudienez, aurreko urteetan baino lan gehiago izango du.

Eta zergaitik galdetuko diozue zuen buruei. Izan ere, Irailaren 11ak eragindako psikosiaren ondoren, Papa Noel bizar-luzea eta Orienteko Hiru Erregeek arazo pranko izango baitituzte beraien banaketak egiteko garaian, zorte handia beharko dute izan EEBBetan edo Britainia Handian atxilotzen ez badituzte Al-Qaidako kide direlakoan. Hemengo umeek behintzat ea zorte pixkat duten ete "Fede" eta bere ahuntzatxoari ixkin egiteko gai den gure Olentzero...

Gainontzean, hain gazte eta zintzo izan ez "zaretenentzat",

urteko garai honetan horren famatuak izaten diren luxusko bazkari eta afarietarako prestakuntza garaia oso aurreratua eramango dezutelakoan nago.

Noaua!n bertan ere irakurtzeko aukera izan genuen nola aitzakia honekin milaka gazte eta ez hain gazte, Behobiatik Donostiaraino korrika etorri ziren... Hainbeste turroi jateko asmoa izan al dezake gizaki batek,....

Beno, eta Artza handiek egiten duten antzera, negu hotz eta luze baterako prestatu geranentzako, ea mendi garaietako malda zurietan energia pixkat erretzeko aukera ematen digun denboraldi honek.

Guzti hau esan ondoren, urteko azkenengo egun hauek zorionez eta alaitasun osoz igaro ditzazuen opa dizuet eta ea gainera datorrigun urte berria, atzean uzten ari garena baino hobea izaten den. Ez da zaila izango ezta?



Zure publizitatea hemen jarri nahi baduzu, deitu 943 36 03 21 telefonora!



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92



ARRAINDEGIA
PELLO



Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL



Lehiaketa



Nor da argazki honetan itxura berria eman diogun usurbildar hau?

Asmatzaileen artean
Tragoxka tabernan bi
personentzat afaria
zozketatuko dugu

124. aleko erantzuna



Berria da iturri hau,
Txaramuntoko etxe berrien
ondoan jarri dutena hain
zuzen ere. Guk, etengabe
ur jario batean zegoela
atera genion argazki.

Irabazlea

Jokin Rezola

Saria

Tragoxkan bi
personentzat afaria

P A T R I

J A T E T X E A
Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



Urtinea

Loreak - Lore landareak

Lore sortak - Koroak

San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

JUANTXO

burdindegia
kale nagusia 10 Usurbil
37 00 08

Zinkildegia

Lentzeria,
gizonezkoentzat arropa,
haurren jantziak,
etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behean,
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87

TXURRUT

TABERNA

gitro eta musika atsegina!

San Esteban kalea, 1
Tel: 943 36 00 80

Kale Nagusia USURBIL
Tlf. 943 37 33 40
943 37 09 15

LABE-GOXO

ABENDUAK 15 larunbata

- **Harlax** musika talde lezotarraren eta **Legen Beltza** azpeitiarren **kontzertua** Akerra gazte-txean.

OHARRAK

- ✎ Munalurran garaje bateko marra salgai . Telf. 943 362424
- ✎ Yamaha XJ 600 motoa daukat salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- ✎ Usurbilen pisu bat osatzeko jende bila nabil. Deitu 943 793147 edo 617788538 telefonoetara .
- ✎ Giltza batzuk galdu ditut Eguzkitzaldea inguruan. Aurkitu dituenak 652718884 telefonora deitu dezake.
- ✎ Neoprenozko traje bat dut salgai. Rip Curl marka eta L taila. Prezio interesgarria. Telf. 653728059.
- ✎ Udarregi ikastolan eskola kiroleko monitorea behar dira. Deitu 943361216 edo 943370645 telefonoetara.
- ✎ Umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska bat behar dut. Lan ordutegia goizeko 8,00etatik 14,30etara. Telf. 943366952
- ✎ Pisukide baten bila gabiltza Lizarran pisua osatzeko. Interesatuak deitu 699 876 702 telefonora.
- ✎ Trialeko motoa salgai. Montesa Cota 335. 150.000 pezeta. Interesatuak gauean deitu 943 370767 telefonora.
- ✎ Usurbilgo taberna batean lan egiteko pertsona bat behar da. Interesatuak deitu 943 360080 telefonora (Marijo).
- ✎ Neska bat eskaintzen da arratsaldetan ordu pare batez haurrak zaintzeko. Interesatuak deitu 943 366485 telefonora.
- ✎ Garaje itxia salgai Etxealdian. Interesatuak deitu 943 373185 telefonora.
- ✎ Herriko taberna batean lan egiteko neska edo mutil euskaldun bat behar da. Telf. 943 371042.
- ✎ Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua hartuko nuke. Telf. 943 364469
- ✎ Edozein ohetarako balio duen erabili gabe dagoen trapezio bat salgai. Deitu 943 835441 telefonora (Begoña).
- ✎ Pisu bat dut salgai. Deitu 13,00etatik 15,00etara edo 20,00etatik aurrera 943 372983 telefonora (M^o Angeles)
- ✎ "Dia" supermerkatuaren ondian dagoen garaje itxi bat dut salgai galtzaragainan. Interesatuak deitu 943 372831 telefonora.
- ✎ Emakume euskaldun bat behar dugu lau orduz etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Galdetu Iratze belardendan edo deitu telefono hauetara: 943 361276 / 943 36 47 25

UDARREGI IKASTOLA

- ✓ Udarregi ikastolak autobusetako begirale bat behar du.

- **Funtzioak:** Santueneako autobusak egiten dituen lau zerbitzuak bete.

- **Baldintzak:** Euskara jakitea, herrikoa izatea eta 18 urtetik gorakoa izatea.

- **Izen ematea:** Udarregi ikastolako idazkaritzan. 943 361216

- ✓ Datorren abenduaren 18an, asteartea, 2tik 8 urte bitarteko haurren gurasoei zuzenduta hitzaldi bat antolatu du Udarregi ikastolak.

- **Gaia:** Anai-arreben arteko zeloak: oreka emozionala lortzeko aukera.

- **Tokia:** Udarregi ikastolan (Gernika ibilbideko eraikuntzan).

- **Ordua:** 16,45etan.

Haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

Urtezahar gaupasa

- DJ-ak behar dira urte zahar gaupasan frontoian musika jartzeko. Horretarako prest bazaude, azaldu abenduaren 10ean 20.30etan udaletxeko aretora edo bestela deitu 943 36 03 21 telefonora.



Argiaren Adiskideak taldeak antolatuta Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek "Aupa Kintxo" lan berria aurkeztuko dute Oiardo kiroldegian. Bi emanaldi egingo dituzte, 16.30etan bata eta 18.30etan bestea. Sarrerak salgai daude dagoeneko Oiardo kiroldegian, Benta tabernan eta Mahukan. Prezioak: 650 pezeta alde aurretik erosita, eta 800 pezeta egun berean. Urtebeteko haurrak doan.

JOSTAILU BILKETA

- Abenduaren 17 eta 18an jostailuak bilduko dira parroikiko lokaletan arratsaldeko 17.00etatik 19.00etara.

KULTUR HILABETEA

USURBIL

2001

X Herri mailako bola txapelketa, edozeinek parte hartu dezake. Ondoren, trikitilari eskolako ikasleen emanaldia izango da.

ABENDUAK 9 BOLA TXAPELKETA
Askatasuna plazan **10:30etan**
eta **HERRIKO TRIKITILARIEN EMANALDIA**

X Diapositiba-emanaldiak, Bata, Josu Iztueta eta Ander Izagirrereb eskutik eta, bestea, Andatzak eskainia:

ABENDUAK 13 "Pangea, kontinenteen sakontasunera bidaia"
Udarregi Zaharrear **19:30etan**

ABENDUAK 15 "Andatza K.K.E. 2001"
Udarregi Zaharrear **19:30etan**

X BERTSLARITZA: Jon Maia eta Xabier Amurizaren "Mende baten aldarriak hogeigarrenean jarriak" lanaz gozatzeko aukera. XX. mendeko giro politiko eta soziala deskribatzen duten bertsoak aukeratu dituzte bertsolaritzak hogeigarren mendeko ibilera politikoa nola kontatu daen azaltzeko.

ABENDUAK 14 "Mende baten aldarriak hogeigarrenean jarriak" saioa
Udarregi Zaharrear **22:30etan**

X Mendi-irteera:

ABENDUAK 15 MENDI IRTEERA, BAZKARIA eta DIAPOSITIBA EMANALDIA

X AZOKA:

ABENDUAK 16 SANTO TOMAS AZOKA

X Musika:

ABENDUAK 20 HERRIKO ABESBATZEN KONTZERTUA

Salbatore elizan **20:00etan**


Diseñoa: Zaloe Arnaiz

EUSKAL PRESOK



EUSKAL HERRIRA!

Noa!!
KULTUR ELKARTEA



Usurbilgo Udala

USURBILGO OFIZIOAK ZURE ESKURA DITUZTE

Igeltseritza

URDANTZI

**ERRAZKIN
IGELTSEKITZA**

Kale Nagusia, 1
☎ 943 37 26 79 ☎ 36 51 25
Santuenea ☎ 629 42 05 65

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea

Exaden konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

JOSUE ARANZATZIS-

Igeltseritza eta pintura
Juan Jose enea, 6
Kalezar
☎ 943 36 05 50- 606 37 21 05

Pinturak

**RAMON
BARCENILLA**

Pikor pintura eta gotele lanak
Papereztatze-lanak
Pintura-lanak orohar

Mobila: 629 46 09 66

*Pinturas
lon*

943 83 09 37- 670 39 75 04

Iurgintza

**IÑAKI
LATAILLADE**

Iturgintza gas eta bero-
gintza
INSTALAKUN -
Mobila: 609 888021

PORTULARRUME

BAINUKO ALTZARIAK



Telf: 943 36 46 37

**JOSEBA
ARANGU-**
☎ 943 83 00 72

Elektrizitatea

MIKEL IZAGI-

Goiz-Argi etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95

Aroztegiak

BEREZIARTUA

Egurrezko
aluminioogurrez-
ko

Agir... Telf: 43 37 5 71

**JOSE RAMON
IBARGOEN**

Neurriko altzariak eta sukaldeak
Errotaberrri kalea, 3 Osinalde
☎ 943 36 14 48 -
Faxa: 943 36 69 45

**JOSE MARI
KURTZA**

Ugarte, 4 Kalezar
Telf eta faxa: 943 37 12

Eskubla

**JOSE ANTO-
NIO**

Galtzaragaina 2-2B
Telf 943 37 34 70

**EUGENIO
NORIEGA**

Erdiko kalea, 12
Atxegalde
Telf: 943 36 56 65- 616 92 60 25

Gida honetan azaldu nahi
baduzu, deitu!
943 36 03 21
telefonora